

## KANTA JOKUBA

---

# == PILLOTA ==

---

*(Canción compuesta en 1853, por Etchegaray. cura de los Aldudes con motivo de un partido de pelota jugado en Lamiareta (Baztán).)*

Zer du bada aditzen  
Baztango aldetik?  
Mendiak inarrosten  
Iduriz errotik!...  
Bada oi, bada kantu  
Bada irrintzina,  
Aire guzia dugu  
Bertze bat egina.

---

Zer bada ortan zare,  
Zu oraino Pettan!  
Ez dakizu deusere  
Michterio ortan?  
Laur Aldudar tieso  
Espagnol bat etan  
Jokatu dire bapo  
Gaur Lamiarretan.

---

Baztandarra betitik  
Da gizon segura.  
Aldi untan argatik  
Bazen duda-muda.  
Etzelakotz partida  
Chit aren gostura  
Orren gatik ez dauka  
Jokatzeko gura.

—

Ordean Dolagaray  
Baileko Alcalde  
Oore ona garai  
Agertzen fagore.  
Joka beitez mutillak  
Menturaz debalde  
Naiz neronek untzak  
Bota zuen alde!

—

Orobat urbiltzen da  
Jaun apez Gamio  
Diolarik: zer bada  
Du batek balio  
Ez badu bere itza  
Atchikitzen bero,  
Naiz galduko untzak?  
Ikusten da gero!

—

Espanolek bortz joko  
Frantsesek baterez,  
Ja zioten gorasko:  
Eginen ere ez!  
Orduan sabel-minak  
Batziren Arabez  
Bai ondikozsaminak  
Nork erranen du ez!

—

Bainan Zelay zaarra  
Bear da jokatu,  
Jendearen sukarra  
Oiuz abiatu.  
Echtebe paretetik,  
Zu beti airera  
Ez utzi oraikotik  
Jokorik sartzera.

—

Bada erran bezala  
Doa eskasera  
Andik ikus-aala  
Pillota pasora!...  
Ja orra botaria  
Doa baztertzer  
Ez jakinez jarria  
Norat sakatzera!

—

An ordutik jokoak  
Badoazi lerroan,  
Ala nola ostoak  
Aizeak airean!  
Aldiz azken kintzea  
Anttonek ereman  
Gibeletik artua  
Bertz'alderat eman!

—

Orduan zer zen bada  
An, Pettan, ikusi,  
Erraiteko ez datza  
Batere itsusi,  
Lagunek aldiz zuten  
Zelay erakutsi,  
Arturik sorbaldetan  
Zelakotz nagusi.

—

Bainan orrelakorik  
Ez naiz onetsi,  
Laster doa artetik  
Oori iesi.  
Gizonari zoin den eder  
Beti garaitia  
Ongi doa alaber  
Zinez modestia!

—

Anaia on bezala  
Baltsan juan ziren  
Gaua bear zutela  
Eman Elueten.  
Lorik egin ote zuten  
Ez nezake erran  
Ezen bozkario zen  
Bardin guzietan.

—

Biamun goizean  
Orra Elizondon  
Bear dela lachoan  
Jokarazi Antton.  
Ainitz nekatu gabe  
Irabazi zion  
Bizpairur untza pare  
Dena ere da on.

—

Itzak dituztenean  
Geroko ibili  
Eman ziren bidean  
Guziak gizonki.  
Bainan lotzearekin  
Mendi kaskoari  
Eeien arrabotsekin  
Ikaran zen jarri!

—

Urbiltzean etchera  
Una bertze berri  
Bear dela bandera  
Egin churi gorri,  
Eta eman zaldira  
Gure Jaun Zelayri  
Alchatzeko airera,  
Boltan kantuari!

—

Batzuek krapestutik  
Bertzek estibera  
Or deramate pozik  
Berak du bandera!  
Gudu baten ondoan  
Iduri duela  
Erromako irian  
Sartzen jeneralal!...

—

Orai nere maiteak  
Nik emen banaki  
Guziz, zuek gazteak,  
Kontseilatzen finki:  
Partida egitean  
Aalaz izerdi  
Gero jokatzekoan  
Gelditzen da ongi.

—

Ez beiaz enganatu  
Bitorios dena  
Ez sobera jokatu  
Gaur eskutan dena  
Bezpera alegerak  
Duke goiz iluna  
Jokairi berotuak  
Maiz du biotzmina.

—

Bertze alde gaurgoitik  
Nork bada ez daki  
Nior guti jokotik  
Izan dela ongi.  
Aldiz tuzte ainitzek  
Bere bertzenekin  
Galdu bai doakabek  
Arimak eyekin!

